

NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

PARTE HARTZEKO PROZESUA.

NLE-REN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Baliabideen eta azpiegituren sektoreko saioa

Lekua: INAP eraikina, Pio Baroja aretoa.

Eguna: maiatzaren 27a

Ordua: 12:30etatik 14:30etara.

SAIOAREN EGITURA

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren zirriborria aurkeztea.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Baliabideei eta azpiegiturei buruzko bilkura sektorialaren helburua NLEren zirriborria aurkeztea zen, bereziki BALIABIDEAK ETA AZPIEGITURAK alderdiekin lotutako guztia, baita gai horiei buruzko galderak eta ekarpenak jasotzea ere.

Garrantzitsua da adieraztea zirriborriaren inguruko parte-hartze prozesu hau prozesu osoaren fase bat dela, eta informatzeko eta parte hartzeko beste une batzuk ere daudela. Fase honetan, zirriborria da xedea, eta jasotzen diren ekarpenetan oinarrituta aldaketa ezberdinak jasan ditzake.

Garrantzitsua da adieraztea fase honetan parte hartzeko aldia ekainaren 25era arte luzatu zela, NLEren berrikuspenean parte hartzeko webgunearen bidez (<https://participa.navarra.es/processes/revision-estrategia-territorial-navarra?locale=eu>). Webgune horretan, beharrezko dokumentazioa deskarga daiteke (NLEren zirriborria eta laburpen exekutiboa) eta beharrezkotzat jotzen diren ekarpenak egin daitezke.

Jarraian, NLEren zirriborroa aurkeztu ondoren bilkuran egindako ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Parte-hartzaileei animatu zitzaien beren ekarpenak idatziz web-orriaren bidez bidaltzera, behar bezala kontuan har daitezten.

GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Ez dira ipini pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Aldiriko trenaren potentzialtasunaren gaia zalantzan jarri da. Badirudi tren-eredu hori egokiagoa dela askoz ere populatuagoak diren beste eremu batzuetan.
- Faltan eman da euskal Y-arekiko konexioari buruzko zerbait aipatzea, funtsezko alderdia baita konektibitate estrategikorako.
- Aipatu da jarduera ekonomikoko lurzoruak sortzea oso garrantzitsua dela landa-ingurunerako. Garrantzitsua da landa-eremuetan lurzoru hori sortzeko irtenbideak bilatzea, eta NLEk argi adierazi beharko luke.
- Adierazi da enpresek, industrialdeetan kokatzeko, trenbide-sarbideetatik hurbil dauden lursailak eskatzen dituztela. Noain eta Tuterako karga-nodoak baino ez dira aurreikusten, eta komenigarria litzateke leku gehiagotan aurreikusita egotea.
- Aipatu da ezen, zirriborroan, Bera eta Tuterako logistika-arloak eta garraioari laguntzeko zentroak sustatzea planteatzen direla. Hala ere, LAPek gehiago jasotzen dituzte. Horren arrazoiaren inguruan zalantzak sortu dira.
- Nabarmendu da hiri-drainatze jasangarriko sistemak (SUDS) behin eta berriz erabiltzen ari diren tresnak direla. Adibidez, Tuterako eta Atarrabiako proiektu pilotu batean aplikatzen ari dira, eta Gardachalesko etorkizuneko urbanizazioan ere aplikatuko dira. Bestalde, Life NADAPTAK, Klima Aldaketari buruzko Foru Legeak eta beste batzuk ere hitz egiten dute SUDSei buruz. Hau da, tresna horiek garrantzia hartzen ari dira, baina ez dute arau-garapenik. Zalantza

azaldu da NLEk kontuan hartuko ote dituen, lotura-mailaren bat egotea proposa ote daitekeen.

Ekarpenak amaitu ondoren, gogorarazi zen online parte hartzeko aukera zegoela ekainaren 25era arte, eta, horrela, saioa amaitu zen.